

Lucila Spigelblatt

María Lucila de los Remedios Etcheverry Arrieta, Mexikon jaio zen, eta Erizaintza ikasi ondoren, osasun publikoan eta psikiatrian espezializatu zen. "Nire lanbidean aritzea ezinezkoa izan zitzaidanez, guztia aldatu zen Kanadara joan behar izan nuenean", aitortu du.

Kanadar batekin ezkondua, Lucila Spigelblatt izenez ezagunagoa da: "Ezinezkoa da nire izena kanadar formularioetara egokitzea".

Bere seme-alaben eskolan interprete lanak egin zituen, eta Kanadara iritsi berriak ziren familien gizarteratzea errazteko proposamen bat garatu zuen. "Ideia onartu zuten, eta orain nazio mailako programa da".

Bere ezagutzak eskaintzen jarraitzen du, Immigranteentzako Zentro Katolikoan alboko zuzendari exekutibo gisa: errefuxiatuei eta etorkinei laguntzen aritzen den agentzia. "Eremu, aditu eta baliabide ezberdinak Kanadara iritsi berrientzako zerbitzuetarako sarbidea erraztea" bere pasioa dela aitortu du.



Zein da Komunitatearen Babesletzarekiko zure lotura?

Hogei urte baino gehiago daramatzat horretan. Babesletzako zenbait akordioaren funtzionamendua erraztu dut, batik bat Eliza katolikoarekin Ottawan. Boluntarioen entrenamenduan lagundu dut, baita errefuxiatuei laguntzeko pertsonen trebakuntzan ere.

Nire karguak aukera eman dit iritsi berrientzako talde komunitarioen, eta Kanadako gobernuaren maila ezberdinen arteko kezka eta aukeren bozeramaile izatea.

Harrera prozesuen eskutik, harrera egin zaien pertsonak, kuantitatiboki eta kualitatiboki hobetzen al dira?

Gobernuak babestutako errefuxiatuen aldean, errefuxiatuentzako birkokatze-programen ebaluazioak adierazten du, komunitate-taldeek hartzen dituzten errefuxiatuek, 5 urteetan, hizkuntza ikasten dutela, lana aurkitu dutela, eta, askoz ere arinago etxe giroan sentitzen direla.

Zein da esperientzia horren iraupena?

Kanadan, urtebetekoa da Komunitatearen Babesletzaren trebakuntza aldia. Egoera berezietan bi urte arte luzatzen da. Adiskidetasun eta elkarlan harremanek, askotan, babesletza amaitu ostean ere urte askoan irauten dute.

Zer esan nahi du zuretzat, "komunitatearen esparrua edo harreman lana" kontzeptuak?

Komunitatea errefuxiatuak hartzeko asmoz mugitzen denean, nire lana, ahaleginak erraztu eta bideratzea da. Erakundeen zeregina, Immigranteentzako Zentro Katolikoa bezalako agentziak barne, batez ere laguntza teknikoa eta logistikoa da.

Komunitateko bizilagunak dira erabakiak hartzen dituztenak. Komunitatearen Babesletzaren laguntzarekin, errefuxiatuei harrera egin zaien unean, gizarteratzen hasten dira.

Erraza da esatea baina zaila gauzatzea. Batzuetan, hasierako urratsak errepikakorrek eta korapilatsuak direnez, erantzun azkar eta zehatzak bilatzen dituzten "profesionalen" artean frustrazioa sumatzen da.

Alor honi hogeita hamar urte baino gehiago eskaini ondoren, ziur nago komunitatean zuzenean errefuxiatuak hartzeko prozesuak, komunitatea bera atseginagoa eta emankorragoa izaten laguntzen duela.

